



PRENTSA OHARRA

GUREAKEK AIPAMEN BEREZIA JASO DU DSS INN SARIETAN, PROIEKTU BERRITZAILEAK BULTZATZEAGATIK

Donostiako Sustapenak GUREAK saritu du, desgaitasuna duten pertsonak laneratzen laguntzeagatik eta helburu horrekin proiektu berritzaileak etengabe bultzatzeagatik.

Donostia, 2023ko azaroaren 30a. DSS INN sariak gaur banatu dira Maria Cristina Hoteleko Elkano Aretoan, Donostiako Sustapenak antolatutako Berrikuntzaren Astearen X. edizioari amaiera emateko.

Seigarren urtez aipamen berezia egin da, aurtengoan GUREAKi egokitu zaiona, Donostian ikerketa eta berrikuntzaren arloan lan garrantzitsua egin duen eta Donostiako ekonomian eragina duen jarduerari.

HispaVista ere saritu dute, enpresa berritzaile finkatuaren sariarekin, berritzeko eta Interneteko aldaketa azkarretara egokitzeko duen gaitasunagatik, adimen artifiziala bezalako arloetan proiektu berriak garatuz eta enpresei eraldaketa digitalean lagunduz. Beste sarituetako bat Indicate Solutions izan da, bere teknologia berritzaileagatik goraiapatua. Honek erabilera bakarreko soluzioa eskaintzen du, alde aurretik odola manipulatzeko beharrik gabe eta ekipo garesti, irakurle espezializatu eta trebatutako langileen beharrik gabe. Indicate Solutions-ek, besteak beste, minbizia eta COVIDa diagnostikatzeko proba azkar bat sortu ditu.

Sarien banaketan, Eneko Goia Donostiako alkateak saritutako enpresak zoriondu ditu, "Donostia denaren adibide bat zaretelako eta Donostia izaten jarraitzea nahi dugulako". Jasotako aipamenagatik zoriondu du GUREAK, eta adierazi du, "Aurten, Gizarte Ekonomiaren Hiriburua garen urtean, hain zuzen ere, hiria ezagutarazten duen erreferenteetako bat zarete. Desgaitasuna duten pertsonak lan munduan sartzearen alde aspalditik egiten duzuen lanagatik, eta proiektu berritzaileak bultzatuz garai berrietara egokitzeko erakutsi duzuen gaitasunagatik, ondo merezita duzue honako aipamen hau. Eskerrik asko, bihotzez, egiten duzuen lanagatik".

Ekitaldia amaitu aurretik, Marisol Garmendia, Tokiko Ekonomia eta Enplegu zinegotziak nabarmendu du, "ekosistema berritzaile honek Donostiari egiten dion ekarpena, 6.000 pertsona ari baitira lanean I+G eremuan; gainera, hiriko enplegu guztien %30 zientziaren, berrikuntzaren eta zerbitzu aurreratuen sektorean dago".

GUREAK, gaitasunak lantzen

GUREAK taldeak desgaitasuna duten pertsonentzako lan-aukera egonkorak sortu eta kudeatzen ditu. Bere ibilbide luzean zehar, gizarteratzeko eta laneratzeko enpresa-eredu berria sortu du, Europan erreferente bihurtu dena.

Gaur egun, 6.000 pertsona inguruk osatzen dute taldea, eta horietatik %84k desgaitasunen bat du. Talde sendo eta dibertsifikatua da, eta batez ere industriaren, zerbitzuen eta marketinaren sektoreetan lan egiten du.